

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
- Guztira, 22.739 langabe erregistratu dira martxoan. Lehenengo hiruhilekoko BAIren arabera, Bilboko langabezia-tasak % 9,29ra egin du behera. - Afiliatutako biztanleei dagokienez, 182.949 pertsona izan dira, hau da, % 0,3ko gorakada egon da aurreko hilearekin alderatuta. - Saltoki handiei eta elikagaien kateei dagokienez, martxoko salmentek urte arteko -% 4,0ko beherakada nominala izan dute. - Bilboko jarduera turistikoak gora egin du martxoan, urte arteko terminoetan, bai ostatu-gauetan (% 196,7), bai bidaiari-kopuruan (% 179,0). 216 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira Bilbon, eta horrek 2021eko lehenengo hiruhilekoan baino % 35,0 gehiago izatea eragin du. - Bilboko aireportuak martxoan 294.759 bidaiari erregistratu ditu, duela urtebete baino 241.405 gehiago. - Bilboko Portuak urte arteko % 10,2ko gorakada izan du.		Azken datua	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	182.949	0,3*	mar.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	22.739	0,3*	mar.
	Langabezia-tasa (BAI)	9,29	-0,91 * p.p.	22ko1.HH
	Erregistratutako kontratuak	13.667	20,9	mar.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100)	115,5	-4,0	mar.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	65.131	179,0	mar.
Ostatu-gauak (kop.)	118.946	196,7	mar.	
Enpresa				
Merkataritza-sozietate berriak	216	35,0	22ko1.HH	
Desegindako sozietateak	139	40,4	22ko1.HH	
Garraioa				
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	294.759	452,5	mar.	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,8	10,2	mar.	

DATU BAT

% 9,29

Langabezia-tasa BAI

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia tasa

Martxoan 78 langabe gehiago erregistratu dira; horrek esan nahi du % 0,3ko igoera egon dela hilabete batetik bestera, eta 22.739 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabeziak gora egin du (% 0,1), eta gizonenak ere bai (% 0,6). Nolanahi ere, langabeziak gehiago eragiten die emakumeei.

Langabezia % 2,3 igo da 25-44 urte arteko taldean, eta % 0,6 45 urte eta gehiagokoen taldean. Behera egin du 25 eta 44 urte arteko taldean, -% 0,4.

Sektoreen arabera, langabezia zerbitzuetan, industrian eta eraikuntzan hazi da (hurrenez hurren, 46, 27 eta 48 datu absolutuetan). Lehen sektorean, aldiz, behera egin du langabeziak (12 gutxiago). Aurrez lanik ez zuen taldean gora egin du, 3 langabe gehiago baititu hilabete honetan.

EAEn, langabeziak % 1,1 egin du gora. % 1,8 igo da Gipuzkoan, % 0,9 Araban eta % 0,8 Bizkaian.

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusietan (G-5) erregistratutako langabeziaren bilakaera mantendu da aurreko hileko datuen aldean. Joera desberdina hiriburuetan. Besteak beste, Zaragozan gora egin du langabeen kopuruak (% 2,2) eta Madrilén, aldiz, behera (-% 0,6).

Euskal hiriburuaren taldean (G-3) langabeziak % 1,1 egin du gora. Gora egin du Gasteizen eta Donostian (% 0,8). Iruñean % 1,8 egin du gora.

Erregistratutako langabeak

Martxoa	22.739 pertsona
	% 0,3 ▲
Emakumeak	% 0,1 ▲
Gizonak	% 0,6 ▲

Benchmarkina

Bilbo	% 0,3 ▲
G-5	% 0,0 =
G-3	% 1,1 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliatutako biztanleak

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 182.949 izan dira martxoaren amaieran; hau da, aurreko hilean baino 620 afiliatu gehiago egon dira (% 0,3 gehiago).

Urte arteko terminoetan, Bilboko enpresek 5.645 enplegu gehiago erregistratu dituzte martxoan, % 3,2.

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 535 lan gehiago daude otsailean baino (% 0,4). 66 afiliatu gehiago daude etxeko langileen araubidean (% 10), eta gainerako araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa) 21 afiliatu gehiago daude. Langile autonomoen araubide berezietan behera egin du enpleguak (2 gutxiago, % 0,0).

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen kopuruak % 0,3 egin gu gora hilabete batetik bestera. Araban eta Gipuzkoan gora egin du afiliazioak, % 0,4 bi kasuetan, eta Bizkaian % 0,2.

Afiliatutako biztanleak

Martxoa	182.949 pertsona
	% 0,3 ▲
Araubide Orokorra	% 0,4 ▲
Autonomoak	% 0,0 =
Etxeko Sistema Berezia	% 1,0 ▲
Beste batzuk	% 3,1 ▲

Jarduera-sektoreen arabera. Hiruhileko datua: hirugarren hiruhilekoaren amaieran, martxoan, 5.645 pertsona gehiago daude afiliatuta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (% 3,2).

Sektoreen arabera, enplegua galdu da lehen sektorean eta industrian (–% 7,3 eta –% 0,8, hurrenez hurren); eraikuntzak, berriz, afiliazioa irabazi du, 91 afiliatu gehiago, eta zerbitzuek ere bai, 5.632 gehiago (% 1,0 eta % 3,5, hurrenez hurren).

Zerbitzuetan, gorakadak egon dira hezkuntzan (% 6,2 eta 1.381 afiliatu gehiago), administrazio jardueretan eta zerbitzu osagarrietan (% 6,2 eta 1.075 gehiago) eta jarduera profesionalean, zientifikoetan eta teknikoetan (% 5,8 eta 776 gehiago). Bestalde, enpleguak gora egin du aisian eta kultura, ostalaritzan eta gizarte-zerbitzuetan, eta urtebetean 442, 429 eta 332 afiliatu gehiago irabazi dituzte hurrenkera horretan eta datu absolutuetan. Merkataritzan eta ostatuetan, halaber, zenbateko positiboekin amaitu dute urtea, 168 eta 149 enplegu gehiago hurrenkera horretan.

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,4ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Gora egin du kontuan hartutako hiri guztietan. Madrilen eta Sevillan egon dira gorakadarik handienak (% 0,5 bi kasuetan).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua igo egin da: % 0,2. Gasteizen % 0,2 igo da eta Donostian % 0,4, eta Iruñean, berriz, mantendu egin da (0,0).

Kontratuak

Martxoan 13.667 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, % 20,9 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (2.363 kontratu gehiago). 2021eko martxoarekin alderatuta, gora egin dute gizon zein emakumeei egindako kontratuak: 750 eta 1.613 gehiago izan dira, hurrenez hurren.

Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 52,5 (7.178 kontratu); % 29,9, berriz, 45 urtetik gorakoei (4.093), eta gainerako % 17,5 25 urtetik beherakoei (2.396).

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreak 2021eko martxoan baino 2.403 kontratu gehiago izan ditu. Lehen sektorean gora egin dute (5 gehiago) eta eraikuntzan, aldiz, behera (27 eta 18 gutxiago, hurrenez hurren).

Zerbitzuetan, nabarmentzekoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (1.256 gehiago), osasuneko eta gizarte zerbitzuetako jardueretan, arte-jardueretan, aisialdikoetan eta entretenimendukoetan eta administrazio-jardueretan (355, 275 eta 247 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Etxeetan eta etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzetan, bai eta garraio eta biltegi-garbitzeetan ere, kontratuen gorakada garrantzitsuak egon dira (146 eta 123 gehiago, hurrenkera horretan). Merkataritzan behera egin dute kontratuak (–% 6,6).

Afiliatutako biztanleak

I. hiruhileko (martxo)	182.949 pertsona
	% 3,2 ▲ urterik urte
Lehen sektorea	% 7,3 ▼
Industria	% 0,8 ▼
Eraikuntza	% 1,0 ▲
Zerbitzuak	% 3,5 ▲

Benchmarkina

Bilbo	% 0,3 ▲
G-5	% 0,4 ▲
G-3	% 0,2 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Martxo	13.667 pertsona
	% 20,9 ▲
Emakumeak	% 25,9 ▲
Gizonak	% 14,7 ▲

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 75,3 izan dira. Martxoan 10.023 pertsona kontratatu dira, eta % 56,3 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,36 kontratu.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Lehenengo hiruhilekoko BAI langabezia txikiagoa da, baina, aldi berean, landun gutxiago daude Bilbon.

Emaizta hobea izan da emakumeentzat; izan ere, langabezia murrizteaz gain, okupazioa handitu zaie, hori bai, Zerbitzuen sektorean baino ez.

Bilbok 18.500 landun gehiago ditu hiruhileko honetan, eta duela urtebete baino 2.800 langabe gutxiago.

Lehenengo hiruhilekoan, -% 0,4 murriztu da Bilboko biztanleria landuna. Jaitsiera hori gizonen artean baino ez da gertatu (1.900 gutxiago); izan ere emakumeen artean 1.100 landun gehiago egon dira hiruhilekoaren amaieran.

Okupazioa: hiribilduan bizi diren biztanleei dagokienez, gora egin dute industriaren sektorean (300 landun gehiago), mantendu egin da zerbitzuetan, eta behera egin du eraikuntzan (900 enplegu gutxiagorekin).

Hiribilduan bizi direnen enplegu-tasa % 54,64ra jaitsi da; emakumeen kasuan, % 49,80 da eta gizonen kasuan % 60,29.

Langabezia: langabeek behera egin dute, 1.900 pertsona gutxiago baitira, hau da, aurreko hiruhilekoko 18,0 milatik 16,1 milara jaitsi dira urteko lehenengo hiruhilekoan.

Langabeziak behera egin du emakumeen artean, 1.100 langabe gutxiago, eta gizonen artean ere bai, baina neurri txikiagoan, 800 gutxiago.

Udalerriko langabezia-tasa jaitsi da, eta % 9,29an dago. Emakumeen kasuan, % 8,19ra jaitsi da eta gizonen kasuan % 10,33raino.

Langabezia-tasa BAI

I. hiruhilekoa	% 9,29
	0,91 pp ▼
Emakumeak	1,31 pp ▼
Gizonak	0,52 pp ▼
Biztanleria aktiboa	% 1,5 ▼
Biztanle landunak	% 0,4 ▼
Biztanleria langabetua	% 10,6 ▼

MERKATARITZA

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko $-4,0\%$ jaitsi dira martxoan, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, $-0,4\%$ jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek $-6,9\%$ egin dute behera 2021eko martxoaren alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak $1,7\%$ handitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko $4,7\%$ gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban ($-8,8\%$) eta Gipuzkoan ($-4,2\%$). EAEn, orokorrean, $-4,7\%$ egin dute behera.

Saltoki handiak Bizkaia

Martxoa	115,5
Salmenta-indizea	% 4,0 ▼
- Elikadura	% 6,9 ▼
- Gainerako produktuak	% 1,7 ▲
Landunak	% 4,7 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduen sarean 118.946 ostatu-gau erregistratu dira martxoan; hau da, 78.855 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 196,7).

Bidaia-eraren sarrerak ere antzera egin du gora (% 179,0). Estatuko bidaia-eraren kopuruak gora egin du, baita atzeritarrenak ere.

Estatuko turistak hiribilduko hoteletan ostatu hartutako bidaia-eraren guztien % 65,5 izan dira; Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,8), gero EAEkoak (% 19,9), Kataluniakoak (% 12,1) eta Andaluziakoak (% 8,4). Atzerriko bidaia-erari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 15,8), Alemania (% 10,6), AEB (% 8,3), Erresuma Batua (% 7,8) eta Herbehereak (% 6,6).

Batez besteko egonaldia 1,83 ostatu-gau izan da.

Logelako diru-sarreraren zenbatekoa 39,3 euro izan da, hau da, % 153,6ko gorakada egon da urterik urte (15,5 euro 2021eko martxoan).

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik martxora 281.994 ostatu-gau lortu dira Bilbon; hau da, aurreko epe berean baino % 203,8 gehiago izan dira, 189.176 ostatu-gau gehiago, alegia.

Ostatu-gauak

Martxoa	118.946 ostatu-gau
	% 196,7 ▲

Bidaia-eraren sarrera

Martxoa	65.131 sarrera
	% 179,0 ▲

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 161,4 hazi da eta. Izan ere, gora egin dute Gasteizen, Donostian eta Iruñean.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 387,7ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua.

Benchmarkina

Bilbo	% 196,7 ▲
G-5	% 387,7 ▲
G-3	% 161,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

ENPRESAK

Merkataritza-sozietateak

2022ko lehenengo hiruhilekoan Bilbon 216 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 35,0ko gorakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (56 sozietate gehiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 178 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 50 gehiago; industrian 14 sortu dira eta eraikuntzan 23 (1 eta 5 gehiago, hurrenez hurren).

Lehenengo hiruhilekoan 139 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 40,4 gehiago (40 gehiago). % 78,4 zerbitzuen sektorekoak dira, % 10,8 eraikuntzakoak eta % 10,1 industriakoak.

Merkataritza-sozietate berriak

I. hiruhilekoa	
Sortutako sozietate berriak	% 35,0 ▲
Deseginda	% 40,4 ▲

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 294.759 bidaiari erregistratu ditu martxoan; beraz, urte arteko % 452,5eko igoera izan du (2021eko martxoan baino 241.405 bidaiari gehiago).

Datu absolutuetan, gora egin du estatuko bidaiarien kopuruak; zehazki, iaz baino 164.644 gehiago daude. Gora egin dute, halaber, nazioarteko hegaldietako bidaiariak (76.400 gehiago), eta, gainera, ehunekoari erreparatuz gero, hobeto suspertu da kopurua.

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 2.902 hegaldikoa izan da martxoan.

Garraiatutako salgaien kopurua 57.046 kg izan da.

Aurten, dagoeneko 690.568 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 366,3 gehiago izan dira, 542.477 bidaiari gehiago, alegia.

Aireportuko bidaiariak

Martxoa	294.759 bidaiari
	% 452,5 ▲

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 5.865.4552 bidaiari gehiago zenbatu dira 2021eko martxoarekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoa begira, 37.847 bidaiari gehiago egon dira. Hiru aireportuetan, halaber, gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

Benchmarkina

Bilbo	% 452,5 ▲
G-5	% 385,4 ▲
G-3	% 350,2 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan du martxoan, hau da, % 10,2 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan martxoan kudeatutako salgaien % 64,7 izan da, eta urte arteko % 49,1eko igoera izan du. Alabaina, solteko salgai solidoen trafikoa behera egin du (-% 54,3) eta salgai orokorrenak ere bai (-% 10,0).

Bidaiarien itsas garraioan, 3.194 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Martxoan ez da itsas bidaiei lotutako turismo-jarduerarik erregistratu.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik martxora, 7,4 tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko epe berean baino -% 2,7 gutxiago.

Portuko trafikoa Martxoan

Portuko trafikoa	2,8 milioi tona
	% 10,2 ▲
Bidaiariak	3.194 bidaiari
	% 162,2 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	22.739	0,3*	2022ko mar.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	182.949	0,3*	2022ko mar.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	13.667	20,9	2022ko mar.
Biztanle aktiboak (milakotan)	173,7	-1,5*	2022ko 1. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	157,6	-0,4*	2022ko 1. HH
Langabeak (milakotan)	16,1	-10,6	2022ko 1. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	9,29	-0,91*P.P.	2022ko 1. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	107,7	10,0	2022ko mar.
Afiliatutako pertsonak**	19.157	0,9	2022ko 1. HH
Txikizkako merkataritzako salmenta (indizea)***	117,0	3,2	2021eko 4 HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	115,5	-4,0	2022ko mar.
Turismoa			
Bidaia-erien sarrera	65.131	179,0	2022ko mar.
Ostatu-gauak	118.946	196,7	2022ko mar.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-aria)	1,83	6,4	2022ko mar.
Hoteletako okupazio-maila (%)	41,4	22,5p.p.	2022ko mar.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	39,3	153,6	2022ko mar.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BGPd	108,9	4,8	2021eko 4 HH
Industria ekoizpena (indizea)***	113,2	9,4	2022ko ots.
Merkataritzako sozietate berriak	216	35,0	2022ko 1. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	110,2	12,8	2021eko 4 HH
Garraioa			
Bidaia-erien aireko garraioa	294.759	452,5	2022ko mar.
Hegaldiak	2.902	202,6	2022ko mar.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) tona	2,8	10,2	2022ko mar.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean ** Bilboko enpresetan *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENaren, Estatuko Portuen eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Biztanleria aktiboari buruzko inkesta




Afiliatutako biztanleak




Merkataritza-sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak



Hoteletako ostatu-gauak



Portuko garraioa

